

Ipuinak eta proposamenak

Adi-adi begira egiezu ondoren datozen ipuinei.

Ipuin bakoitza proposamen batekin dator, hauetariko bakoitzak aldaketa txiki bat, eraldaketa bat, manipulazio bat eskatzen du.

Eskaintzen zaizkizuen ipuin bakoitza ikasleei kontatu edota irakurtzerakoan kontutan izan ondoren eskatuko zaizkien manipulazio proposamenak.

Era honetako ekimenak, noizean behin egitea komeni da, ipuinen atalak manipulatu eta egitura literarioak lantzeko intentzioarekin.

Ipurtargia (2. orrialdea)

Kontatzeko ipuin xamurra eta emozioz betea.

Zuzenean irakurtzeko testu erraza da. Ikasleei ipuinari titulu bat asmatzea proposatu

Domingo Goringo pirata (3. orrialdea)

Ipuina ozen irakurri. Pirataren altxorrean, ikasleek nahi dituzten gauzak sartu eta ipuina aldaketa hauekin berriz ere kontatu eta irakasleak idatzi.

Zizarea ziz zizt! (4. orrialdea)

Idatzia dagoen bezala irakurri . “Inork ez zuen sagarra erosi, zer gertatu zen zizaretxoarekin?” Ipuin berri bat egin...

Elefantitare (5. orrialdea)

Txikia zarelako zer gauza bereziak egiten dituzu?

Zer ezin duzu egin txikia zarelako?

Ipurtagia

Barre egiten zioten animalia guztiek ipurtargiari. Tximeletak, barraskiloak, eta kilkerrak egiten zioten barre ipurtargiari.

Tximeletak esaten zion:

–Ja, ja! Ja, ja! Oso itsusia zara.

Barraskiloak esaten zion:

–Je, je! Je, je! Oso barregarria zara.

Kilkerrak esaten zion:

–Ji, ji! Ji, ji! Oso zatarra zara.

Arratsalde batean, tximeleta lorez–lore zebilen, barraskiloa azaz–aza zebilen, eta kilkerra zuloz–zulo zebilen. Eta, konturatu gabe, gaua iritsi zitzaien tximeletari, barraskiloari, eta kilkerrari.

Orduan tximeleta, barraskiloa, eta kilkerra negarrez hasi ziren esanaz:

–Gaua da, galdu egin naiz eta ez dakit etxerako bidea!

Ipurtagiak tximeleta, barraskiloa, eta kilkerra negarrez entzun zituen. Eta ipurdiko argia piztu zuen.

Orduan tximeletak esan zion ipurtargiari:

–Mila esker, ipurtargi, oso polita zara ipurdiko argi eta guzti!

Eta barraskiloak honela esan zion:

–Esker mila, ipurtargi, oso polita zara ipurdiko linterna eta guzti!

Eta Kilkerrak honela esan zion:

–Eskerrak bihotzez, ipurtargi, oso ederra zara ipurdiko bonbila eta guzti!

Anjel Lertxundi

Domingo Gorringo pirata

Mundu guztiak Domingo Gorringo deitzen zion. Pirata zen: oihal beltz batez estalia zuen begia, eta egurrezko hanka bat zeukan. Baina Domingo Gorringok ez zuen inor beldurtzen. Neska mutilek esaten zioten:

–Domingo Gorringo, non duzu ezpata?

–Domingo Gorringo, non duzu altxorra?

Hala ere Domingo Gorringo ez zen haserretzen.

Domingo Gorringok bazeukan, bai, altxor bat urrutiko uharte batean gordeta.

Domingo Gorringok ez zeukan itsasontzirik ordea, eta ez zuen inork pirata urrutiko uhartera eraman nahi.

Behinola kapitain batek esan zion:

–Domingo Gorringo, neuk eramango zaitut urrutiko uhartera.

Kapitainak eraman zuen Domingo Gorringo urrutiko uhartera, eta han aurkitu zuen gaztetan gordetako altxorra.

Altxorreko urreak uharteraino eraman zuen kapitainari eman zizkion. Altxorreko perlez, itsasontzi berria erosi zuen. Altxorreko diruez gozokiak eta gailetak erosi zituen herriko neska mutilentzat.

Anjel Lertxundi

Zizarea ziz zizt!

Zizare luze, lirain, berdeak sagarra jan nahi zuen, baina bere amak esan zion:

-Kontuz, zizaretxo: sagarrak jan nahi badituzu, ez sagar handirik jan. Jan nahi badituzu, beti sagar txikiak jan behar dituzu.

Zizaretxoak erantzun zion:

-Bai, amatxo.

Baina gure zizaretxoa sagarrondo batera igo zenean, ez zen amaren esanaz oroitu eta sagar handi, ederra jaten hasi zen. Gustura zegoen zizaretxoa sagar handi, ederra jan eta jan.

Baina, konturatu gabe, sagarrean sartzen hasi eta galdu egin zen. Zizaretxoak ez zekien sarrerako bidea aurkitzen eta negar eta negar hasi zen. Gaua sagarraren barruan pasa beharko zuen.

Hurrengo goizean, zizaretxoa esnatu zenean:

-Zas! Zas! Zas!

-Ai, ama!- Esan zuen zizaretxoak-. Zer gertatzen da hemen?

Baserritar bat ari zen saga handi, ederrenak otarre batean biltzen. Eta ondoren, sagar handi, ederrenak bildu zituenean, azokara joan zen sagarrak saltzera.

Mikelek sagar handi, eder bat erosi zion baserritarrari.

A ze sustoa hartu zuen Mikelek krask! Krask! Sagarra jaten hasi eta zizaretxoa haren haragiaren erdian ikusi zuenean.

Anjel Lertxundi

Elefantitare

Elefantitare deitzen zioten, titare bat bezain txikia zelako. Behiak baino txikiagoa zen eta astoak baino txikiago, txakurrak baino txikiagoa zen eta katuak baino txikiago, saguak baino txikiagoa zen eta txoriak baino txikiago.

Baina Elefantitare ez da batere gustura bizi:

- Behiek eta astoek zapalduko naute. -Esaten zion amari.
- Txakurrek eta katuak jango naute. -Esaten zion aitari.
- Saguetan eta txoriek beldurtzen naute. -Esaten zion amonari.

Elefantitare aitonarengana joan zen eta esan zion:

- Aitona, triste, goibel eta haserre nago.
- Triste, goibel eta haserre zergatik, e?, zergatik? -Galdetu zion aitonak.
- Titare bat bezain txikia naizelako.
- Ba, suerte handia duzu. Horrela ez duzu beti jan eta jan aritu behar, edan eta edan jardun behar.

Une hartantxe euri zaparrada ikaragarria hasi zen eta Elefantitare harri baten azpian gorde zen. Euri zaparrada ikaragarria aitonaren bizkar gainera erori zen.

-Atxis! -egin zuen aitonak- atxis, atxis, atxis!

Elefantitarek burua harripetik atera eta esan zion aitonari:

-Goazen lehen bai lehen etxera. Aspirina handi-handi bat hartu beharko duzu gripe handi-handi harrapatu baino lehen.

Anjel Lertxundi